

## **MUko neskak futbol 7an garaile, Euskadiko txapelketan**

2011/03/28

Mondragon Unibertsitateak 124 jokalaria (34 neska eta 90 mutil), hainbat entrentzaile eta beste hainbat ikusle joan ziren Bilbora, Euskadiko Unibertsitate Kirol Txapelketa jokatu eta ikustera. Besteak beste saskibaloia, eskubaloia, errugbia, futbola, futbol 7a, areto futbola eta frontoi kiroletan jokatu ziren partiduak, UPV-EHU eta UDren kontra. Azken urteotan gertatu ez den bezala, eguraldi ona izan zen lagun eta horrek giroa hobetzen lagundu zuen. Jokalariei dagokienean, partaide guztiak bertaratu ziren eta atzerapen batzuekin bada ere, aurreikusitako partidu guztiak jokatu ziren.

Goizeko 10:00etatik 14:30ak arte iraun zuen jaialdiak eta jardunaldiaren bukaerarako **7ko futboleko neskak** Espainiako Txapelketaren lehengo faserako sailkatu ziren. Zorionak beraiei eta eskerrak eman, parte hartzera animatu ziren denei.

Mondragon Unibertsitateko ikasle kirolarien hurrengo zitak Zabalki (Pilotako topaketa internazionala), Uhaina (Frantziako Surf Txapelketa) eta Espainiako Txapelketak izango dira.

Euskadiko Txapelketen emaitzak.

